



ERANSKINA

LIZENTZIEI, BAIMENEI ETA IRAKASLEEN HUTSEGITEAK ADIERAZTEKO HILABETEKO PARTEETAN DUTEN TRATAMENDUARI BURUZKO ARGIBIDEAK.

185/2010 DEKRETUA, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzeko dena.
(EHAA 2010-07-16)

ALDEZ AURREKO OHARRAK:

- a) Jarraian aurkezten den laburpena idazpuruan aipatutako **185/2010 dekretutik** aterata dago. Erabilitako kode numerikoak bat datoz baimen eta lizentzia desberdinak aipatzen dituzten dekretuaren artikuluen numerazioarekin, *90, 91, 92 eta 93 arrazoiak izan ezik*.
- b) Aipatutako dekretuaren artikulua batzuk interpretatzearen ondorioetarako, **egun naturalak eta lan-egunak** bereiztea garrantzitsua da: lehen kontzeptuak asteburuak eta jaiegunak sartzen ditu; bigarrenak, aldiz, ez.
- c) Halaber, **lizentziaren eta baimenaren** tratamendu desberdina aipatu behar da. Oro har, lizentziak horrela ezagututako eskubide batez baliatzea dakar (horrek ez du eragin duten zirkunstantziak behar bezala egiaztatzea exijituko ez denik esan nahi); baimena, aldiz, eskatu behar da eta legez emateko eskuduntza duenak eman behar du.
- d) Kasu guztietan behar bezala **egiaztatu behar dira** lizentzia izateko eskubidea edo baimena ematea eragiten duten **arrazoiak**. Egiaztatu gabeko edo behar bezala justifikatuta ez dauden kasuak *93 kodean- justifikaziorik gabe-* agertuko dira.
- e) **Enplegatu publikoaren helbideari** buruzko artikuluetan enplegatu horrek, gertaera jazotzen denean, Administrazioan egiaztatu duen ohiko helbidea agertzen da. Horregatik, helbide hori aldatuz gero, aldaketa hori ahalik eta lasterren jakinarazi beharko da, erregistratzeko.
- f) Hau adierazi behar da: **kontsulta, tratamendu eta azterketa medikuetara joateko baimena** enplegatuarentzat bakarrik da, ez senideak laguntzeko, horretarako behar den denbora konkreturako ematen da (ezin da, beraz, ordubeteko kontsulta medikuarengatik egun oso batean huts egin) eta, betiere, *“kontsulta, tratamendu eta azterketa mediku horiek egiten diren zentroek lan-orduetatik kanpora joan ahal izateko moduko kontsulta-ordutegia ez badute”*.
- g) Ez dago adin txikiko seme-alabei edo beste senide batzuei kontsulta, tratamendu edo azterketa medikuetara joaten **laguntzea** espezifikoki kontuan hartzen duen lizentziarik. Horregatik, arrazoi horiengatik hutsegitea aurreikusten bada, zuzendariari baimena eskatu beharko zaio, baita justifikazioak aurkeztu ere, eta, horretarako, *91. arrazoia (ez 55a)* erabiliko da. Zuzendariak hartuko du erabakia.
- h) Azkenik, hau gogorarazi behar da: gaur egun ez dago **norberaren arazoetarako lizentziarik**, baimen bat (*58. arrazoia*) baizik. Baimena den aldetik, alde zuzenetik justifikatu beharko da eta, nahi izanez gero, eskuduntza duenak emango du, horri buruzko artikuluan ezarritako baldintzetan oinarrituta.

ARRAZOIAK/KODEAK

39. Gaixotasunarengatik edo istripuarengatik lizentzia.

“Osasun-arretako zerbitzuek emandako bajaren bidez egiaztatu “ behar dira egoera horiek. Ondorioz, aldi baterako lan-ezintasunarengatik baja-partearen bidez egiaztatuta ez dauden osasun-arrazoiek eragindako hutsegiteak ezin dira kontzeptu honetan justifikatu. Kasu hauetan, gainera, “Administrazioak, enpresako Zerbitzu Medikuarien osasun-azterketaren bidez, gaixotasunaren edo istripuaren jarraipena egin ahal izango du, baita gaixoa nola dagoen egiaztatu ere “.

40. Haurdunaldiarengatik, erditzearengatik, bularra emateagatik, adopzioarengatik eta harrerarengatik lizentzia.

185/2010 dekretuaren 40. artikuluan azaltzen diren kasu asko sartzan dira lizentzia honetan eta hau nabarmendu ahal dugu: irakaskuntzako langile publikoek dute *“haurdunaldiarengatik eta erditzearengatik lizentzia edukitzeko eskubidea. Lizentziaren iraupena 18 astera, etenik gabekoak, mugatuko da “.* Lizentziak bi aste gehiago eduki ahal izango ditu, semearen/alabaren elbarritasunaren edo jaiotza anizkunarengatik kasuan. Aste horietako 6, gutxienez, erditzea eta berehala hartu beharko dira. Gainontzeko kasuak zehatz-mehatz azaltzen dira aipatutako artikuluan.

41. Aitatasunarengatik lizentzia.

Guztira *“21 egun natural dira, etenik gabekoak, (beraz, ezin dira zatitu) eta, betiere, jaiotza-datatik, harrerari buruzko administrazio- edo epailearen erabakitik edo adopzioa osatzen den epailearen ebazpenetik hasita hasiko da kontaktzen epea “.*

Gainera, *“lizentzia honek lau aste gehiago, etenik gabekoak, eduki ahal izango ditu, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera “.*

42. Norberaren edo senideen ezkontzarengatik lizentzia.

Norberaren ezkontzarengatik, 20 egun naturaleko lizentzia eduki ahal izango da, *“ezkondu aurretik edo ondoren hartu ahal izango direnak. Ezkontzaren data aldian sartuko da “.* Oporraldi bati metatu ahal zaio. 15 egun lehenago, gutxienez, tokian tokiko Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi beharko zaio. Lizentzia hori *“izatezko bikoteei “* ere aplikatu ahal zaie eta, kasu horretan, *“EAEko Izatezko Bikoteen Erregistroak emandako ziurtagiriaren bidez “* izatezko bikotea direla egiaztatzeko exijituko zaie. Lizentzia hori aurrekoa izan eta 6 urte pasa arte ezin izango da berriz hartu eta *“bikotekideak pertsona berberak badira, inoiz ere ez “.*

Ahaidetasunaren 2. mailara arteko, odolkidetasunarengatik (biologikoa) eta kidetasunarengatik (politikoa) senideak ezkontzen badira, egun natural bat hartu ahal izango da, *“ezkontza ospatzen den datan “.* Azken baieztapen honek ondo adierazten duenez, lizentzia ezin izango da ezkontzarena ez den egun batean inoiz ere hartu. 3 egun naturalera zabalduko da, ospakizuna enplegatu publikoaren ohiko helbidetik 150 kilometro baino gehiago egiten bada.

43. Gaixotasun larriarengatik edo senideen heriotzarengatik lizentzia.

3 lan-eguneko lizentzia senideen heriotzarengatik, odolkidetasunaren edo kidetasunaren 2. mailara artean, *“edo ahaidetasun-maila urrunagokoen kasuan, haiekin bizi izanez gero “,* eta 5 lan-eguneko lizentzia egiaztatutako bikotearen edo semearen/alabaren justifikatutako gaixotasun larriarengatik edo heriotzarengatik.

2. mailara arteko senideen, *“edo ahaidetasun-maila urrunagokoen haiekin bizi izanez gero “,* justifikatutako gaixotasun larriarengatik, 2 lan-egun. Arrazoi honengatik bigarren lizentzia bat ere hartu ahal izango da, lehenengoa izan eta 30 egun pasa ondoren, *“behar bezala egiaztatutako “* hilurreneko gaixotasunak ez badira. Lizentzia horretan heriotza gertatuz gero, gertatzen denetik kontaktzen hasita eta lehen paragrafoan azaldutako terminoetan hasiko da kontaktzen lizentzia.

Aipatutako aldiek 2 egun natural gehiago izango dituzte, gertaerak enpleguaren ohiko helbidetik 150 kilometro baino gehiagora jazotzen badira, arrazoi berarengatik ematen den bigarren lizentziaren kasuan izan ezik.

“Batzorde Paritarioak gaixotasun larria zer den zehazteko irizpideak ezarriko ditu. Zalantzarik izanez gero, Prebentzio Zerbitzuko Arlo Medikuak sail horretan sartzen dituenak direla interpretatuko da “. Oro har, ebakuntza kirurgikoak eta ospitaleratzea dakarten jarduera medikuntza-jarduerak sartuko dira gaixotasun larrien multzoan baina kirurgia txikiko ebakuntzak edo osasunarekin lotura zuzena ez dutenak (ebakuntza estetikoak esate baterako) ez lirateke multzo horretan sartuko.

“Lizentzia eragiten duten gertaeren datetan hartu beharko dira, derrigorrean “ lan-egunak.

44.- Lanaldiaren murrizketa edukitzeko baimena, lehen mailako senideen oso gaixotasun larriarengatik.

Edo maila txikiagoko senideen kasuan, haiekin bizi izanez gero. *“Asteko lanaldiaren erdi edo heren bateko murrizketa. Lanaldiaren murrizketa hori ordainduta egongo da eta, gehienez ere, hilabetekoa izango da.*

45. Nahitaezko eginbeharrak, publikoak edo pertsonalak, betetzeko lizentziak.

Bakarrik betetzeko behar den denborarako eta, *“betiere, ezin badira lan-orduetatik at egin “. Eginbehar horiek 185/2010 dekretuaren (uztailaren 16ko EHAA) sartzen direnak izango dira. Hauek dira: epaitegien, polizia-etxeen edo beste administrazio-organo batzuen zitazioak, NANA, pasaporte, gidabaimena atera edo berritzeko azterketa, elbarritasun psikikoa edo fisikoa duten senideei (2. mailara artekoak) tramite horiek egiten laguntzea eta, pertsona hautetsia baldin bada, parte hartu behar duen bileretara joan behar izatea.*

Hau azpimarratu behar da: zenbait eparen arabera, *“ez betetzeak erantzukizun zibila, administratiboa edo zigor motakoa baldin badakar jotzen da bakarrik eginbehar bat nahitaezkatzat “.*

46. Ohiko helbidetik beste batera aldatzeagatik edo mudantza egiteagatik lizentzia,

2 lan-egun, erroldatze-ziurtagiarekin justifikatuko direnak. *“15 egun naturaleko epean hartuko dira, erroldatze-datatik kontatzen hasita “.*

47. Sindikatueto edo pertsonalaren ordezkaria izateagatik bete beharreko funtzioengatik lizentzia.

“Indarreko legeriak xedatutakoaren eta akordio honetan agertzen diren puntuen arabera “.

48. Emakume funtzionarioaren kontrako genero-indarkeriarengatik lizentzia.

Arrazoi horrengatik gertatzen diren erabateko hutsegiteak edo hutsegite partzialak justifikatuta egongo dira, *“arreta emateko edo osasuneko gizarte-zerbitzuek zehazten dituzten denboran eta baldintzetan “.*

49. Adin txikikoak, pertsona elbarrituak edo odolkidetasunaren 2. mailara arteko senideak zaintzeko baimena.

Baimena lanaldiaren 1/3ko edo 1/2ko murrizketa da, *“hartzekoen kenketa proportzionalarekin kontzeptu guztietan “, betiere zaintzen zaion senideak “ordaindutako jarduerarik egiten ez badu “.*

50. Gaixotasun kronikoa edo mugitzeko arazoak dituzten senideak zaintzeko baimena.

Ordaindutako baimena, 50 ordura artekoa ikasturteko, karrerako funtzionarioentzat, praktiketako funtzionarioentzat edo ikasturte osoko lanpostu hutsa betetzen duten bitarteko irakasleentzat, odolkidetasunaren 2. mailara arteko senide bat edo, harekin bizi izanez gero, senide txikiago bat zaindu behar badute. Ziurtagiri medikuaren bidez egiaztatu beharko dira baimen hau eragiten duten zirkunstantziak.

“Oro har, 2 ordukoa da ordu-kreditu honetan egunero erabili ahal den gehienezko denbora eta, betiere, lanera sartzeko edo lanetik irteteko orduekin bat etorrira hartu beharko dira “. Gainera, “baimen hau ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinazioan hartu beharko da, zerbitzuaren premiak beteta geratu ahal izateko moduan “.

51. Hobekuntza profesionalerako ikasketak, betetako lanpostuaren funtzioarekin harreman zuzena badute, baimena.

“Baimen hau ematea ez da derrigorrezkoa izango eta behar diren ordainsariak eragingo ditu “. Ezin zaio bitarteko pertsonal funtzionarioari aplikatu.

52. Ikasketak, betetako lanpostuaren funtzioekin harreman zuzena ez duten arloei buruzkoak, egiteko baimena.

Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzak eman ahal izango du, *“ikasturte bateko aldian, aldi hau ezin da luzatu, ordainsariei aldeztuz aurretik espresuki uko egin ondoren “. Baimen hau bakarrik karrerako funtzionarioei eman ahal izango zaie.*

53. Azterketetara joateko baimena.

Ohiko edo aparteko deialdian azterketa akademikoetara joateko baimena, *“ikastetxe ofizial edo homologatuetan “*, egun natural batekoa egin beharreko proba bakoitzeko, eta 2 egun naturalekoa izan daitekeena, azterketa egiaztatutako helbidetik 150 km. baino gehiago egiten bada. Betiere behar bezala justifikatu beharko da.

54. EAEko Administrazio Orokorrera sartzeko probetara joateko ordaindutako baimena.

Barne promozioko deialdietan Administrazioa sartzeko aukeratze-probetara joateko baimena, *“probetara joan ahal izateko behar den denborarako “. Bakarrik karrerako funtzionarioei eta praktiketako funtzionarioei eman ahal zaie baimen hau.*

55. Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikuetara joateko baimena.

“Joatea behar bezala justifikatuta badago eta kontsultak, tratamenduak eta azterketak egiten diren zentroek lan-orduetatik at joan ahal izateko moduko ordutegirik ez badute “. Baldintza berberak bete behar dira langileek, jaino aurreko azterketak egiteko eta erditzea prestatzeko ikastaroetara joateko, langileek astean eduki ahali zango dituzten 4 orduetarako.

Baimen hau bakarrik osasun-zerbitzu mediku ofizialei buruzkoa da (mediku kolegiatuak, ospitale publiko edo pribatuak, osasun-zentroak, anbulatorioak...), baita funtzionarioak berak behar dituen kontsultei buruzkoa ere. Adin txikiko semeei/alabei edo beste senide batzuei laguntzea ez da, beraz, kontzeptu horretan sartzen.

56. Gertaera kolektibo zientifiko, tekniko, profesional, kolegal, sindikal edo elkarte mailakoetara joateko baimena.

Bakarrik funtzionarioentzat eta ikasturte osoko lanpostu huts bat betetzen duten bitarteko irakasleentzat, zerbitzu-premiak kontuan hartuta *"tokian tokiko Lurralde Ordezkaritzak alde zuzenetik baimena eman ondoren"*. Baimena ematen bada, lehen 5 egunak besterik ez dira ordainduko eta ez du inolako kontzepturengatik ordainsaririk jasotzeko eskubiderik ematen, ezta dietetarako eta bidaia-, ostatu- edo izena emateko gastuetarako ere.

57. Kargu hautetsia izateak eragindako funtzioak betetzeko baimena.

Bakarrik karrerako funtzionarioentzat, praktiketako funtzionarioentzat edo ikasturte osoko lanpostu huts bat betetzen duten bitarteko irakasleentzat, aurreko 45.d. artikuluan ez dauden funtzioak betetzeko eta *"horretarako behar den denborarako eta, betiere, baimenaren gutzizko ordu kopurua urteko lanaldiaren % 10etik gorakoa ez bada"*.

Halaber, 1/5ko, 1/3ko eta 1/2ko lanaldi-murrizketak (azken hau ezin zaie praktiketako funtzionarioei aplikatu) eskatu ahal izango dituzte; lehenengoa ordaindua izango da eta beste biek behar diren hartzeko enketa ekarriko dute.

58. Norberak bere gauzak egiteko baimena.

Betiere tokian tokiko Lurralde Ordezkaritzan eskatu beharko da. Zerbitzu-premien arabera emango da, ez da derrigorrezkoa eta ez du inolako ordainsaririk eragingo. Baimen hori, 2 urteko aldi, ezin izango da 4 hilabetetik gorakoa izan.

Ikasketa ofizialak egiteko eskatzen bada, *"4 hilabetera arte, etenik gabekoak, eman ahal izango dira, behin bakarrik eta urtero"*.

Kontzeptu honetan egoera hauek ere sartzen dira: administrazio eta erakunde publikoetara sartzeko aukeratze-probak egitea eta askatasunik gabe dauden odolkidetasunaren 2. mailara arteko senideak bisitatzea.

59. Ordaindu gabeko baimena.

Bakarrik karrerako funtzionarioentzat. Ematen bada, ikasturte oso baterako edo 6 hilabeterako (abuztutik urtarrilera edo otsailetik uztaile), aldi horretan ezin izango da ordaindutako jarduerarik egin. 5 urtean behin eskatu ahal da.

60. Partzialki ordaindutako baimena.

"Urte sabatikoa" deritzona da eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2004ko urtarrilaren 7ko aginduak (urtarrilaren 22ko EHAA), edo beronen ordezkariak, espezifikoki arautzen ditu emateko baldintzak.

90. Hartu ez diren oporrak.

Auzitegi Goreneko 4. Salak emandako 246/2009 sententzia aplikatuz, 185/2010 dekretuak 34. artikuluan agertzen du oporrak, gaixotasun edo istripuarengatik eten badira, osorik hartzeko eskubidea.

...”Oporraldia urteko abuztuan konkretatuko da, eta ez ditu inolaz ere iraileko egunak hartuko “.

...”Gaixotasuna edo istripua bezalako zirkunstantziak gertatuz gero, oporrak eten ahal izango dira eta interesatuak, zirkunstantzia horiek desagertu eta alta medikua jaso ondoren, izango du oporrak osatzeko eskubidea...”.

91. Justifikatutako beste arrazoi batzuk.

Ikastetxeko zuzendariak du, III. eranskinaren bidez, beste erabateko hutsegite edo hutsegite partzial batzuen beharra edota premia justifikatzearen ardura, betiere aurreko puntuetako egoeretakoren bat gertatzen ez bada.

Ahal izanez gero, enplegatu publikoak agirien bidez justifikatu beharko dio hutsegitea zuzendariari eta honek argudiatutako arrazoiak, hutsegitearen iraupena eta emandako ziurtagiria kontuan hartu behar diren edo ez baloratu beharko du.

Adin txikikoei edo beste senide batzuei kontsulta, tratamendu edo azterketa medikuetara laguntzea kontzeptu honetan sar liteke, aipatutako 185/2010 dekretuak ez baititu egoera horiek espezifikoki azaltzen. Edonola ere, 55. artikuluan azaltzen den baimenerako ezarritako muga eta baldintzak ere aplikatu ahal izango zaizkio.

92. Grebak.

Kontzeptu hau bakarrik legez deitu eta baimendutako grebei buruzkoa da. Gainontzekoak justifikatu gabeko hutsegitezat joko dira, hurrengo puntuan adierazitako ondorio guztietarako.

93. Justifikaziorik gabekoak.

Kategoria honetan hauek sartzen dira:

- Aurreko puntuetan ezarritako zirkunstantzia bat bera ere gertatzen ez diren hutsegiteak.
- Aurreikusitako zirkunstantziaren bat gertatu arren, enplegatu publikoak denboran eta behar bezala justifikatu ez dituenak.
- Aurreko biak bezalako beste edozein hutsegite, zuzendariak III. eranskinean “91 gisa- justifikatutako beste arrazoi batzuk “- justifikatzeko *premia edota beharra* ez badago.
- Halaber, agirien bidez justifikatzeko manipulazioa edo faltsutzea egin den hutsegite horiek ere sartuko dira (egoera honek, gainera, diziplina- edota zigor-erantzukizuna eragin lezake, horretarako zirkunstantziak gertatuz gero).

Administrazioak, lan egin ez den denborarengatik hartzekoen kenketa egiteaz gain, kasu bakoitzean behar den diziplina-zigorra ezarriko du, hutsegiteak, zigorrak eta erabili beharreko prozedura tipifikatzeari begira indarreko legeriak xedatutakoaren arabera:

- Apirilaren 12ko 7/2007 legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena (2007-04-13ko BOE)
- Uztailaren 6ko 6/1989 legea, Euskal Funtzio Publikoarena (1989ko uztailaren 28ko EHAA), azaroaren 7ko 16/1997 legearen bidez aldatua (1997ko azaroaren 18ko EHAA).
- Urtarrilaren 10eko 33/1986 errege dekretua, Estatuko Administrazioako funtzionarioen diziplina-erregimenaren araudia onartzen duena (urtarrilaren 17ko BOE).